GAIXOTASUNARI BURUZKO KONTAKIZUN KOLEKTIBOA ELKARREKIN SORTZEKO ETA PARTEKATZEKO PROPOSAMENA.

# CRÓNICAS COMPLEJAS




# KRONIKA KONPLEXUEI BURUZ

**6 eta 18 urte bitarteko pertsonak** (edo gaitza izan zutenean urte horiek zituztenak) **gonbidatzen ditugu gaixotasunari buruz hausnartzera, hitz egitera, marraztera edo idaztera.**

**Emaitzak otsailaren 15etik martxoaren 20ra arte erakutsiko dira** Mediateka BBKn, Azkuna Zentroaren barruan eta online.


Josune Urrutiaren ekimena da, eta Azkuna Zentroa – Alhóndiga Bilbao-k sustatu du, Babestu, sorkuntzari laguntzeko programaren barruan, eta Osakidetzako Pediatria Unitatearekin lankidetzan.

Osakidetza
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

AZKUNA ZENTROA ALHÓNDIGA BILBAO


## ZERTARAKO?

- Partekatzeko esperientzia eta ikaskuntza pertsonalak, unibertsalak agian?
- Bozgorailua jartzeko 6 eta 18 urte bitartean dauden eta gaitza duten pertsonen gaixotasunarekiko bizipenean.
- Laguntza emateko diagnostikatu berri den edo tratamendu medikoarekin hasi den pertsonari.
- Elkarrizketak izateko pertsonen artean (pazienteak, osasun-langileak, senideak...), gaitzak jota egon zein ez egon.
- Soilik arlo medikuarekin zerikusirik ez duten zenbait kontuz hitz egiteko.



## NOLA EGIN

**Pentsatu partekatu nahi duzun hitz,** anekdota edo ikaskuntza esanguratsu bat (izan daiteke kontu serio bat, edo dibertigarria edo biak aldi berean).

**Bete, marraztu eta/edo idatzi,** tarte bat dago horretarako orriaren atzean. Dokumentu hori inprima dezakezu (A3n izango litzateke aproposena) edo modu digitalean lan egin (tablet, mugikorrean...).

**Partekatu!** Bidali zure ekarpena azkunazentroa@azkunazentroa.eus helbidera. Bidal dezakezu **TESTU** bat editatzeko moduko formatuan, **ILUSTRAZIO** bat (ahal dela eskaneatuta, edo, bestela, ondo hartutako argazki argi bat) edo **AUDIO** bat (kasu honetan hobe da esteka bat bidaltzea fitxategia deskargatzeko, eta ez artxiboa bera).

Gogoratu zure **ekarpena bidaltzeko EPEA** urtarrilak 15ak arte denbora daukazula.

## GOGOETA PIZTEN DUTEN GALDERAK

(ez da beharrezkoa erantzutea)

- Hobe da osasuntsu egotea gaixorik egotea baino?
- Zer da normala nire bizitzan? Eta diferentea?
- Nolakoa da nire bizitzako egun bat? Eta asteburuan?
- Zer aldatuko nuke nire bizitzan?
- Zerk dibertitzen nau?
- Zerk beldurtzen nau?
- Zer kontutan naiz zorionekoa?
- Zer esango zenioke zuk pasa duzuna pasa behar duen norbaiti?
- Zer da osasuntsu egotea? Eta gaixorik egotea?
- Aukeratu daiteke osasuntsu edo gaixo egotea?

## HASI AURREKO GAKOAK

- Erabili zure material gustukoenak edo eskura duzuna. Zuri-beltzean edo koloretan egin dezakezu.
- Idatzi, marraztu edo biak.
- Argi idatzi, ondo uler dadin.
- Marrazten eta idazten duzuna ondo egongo da. Eskerrik asko!

## INSPIRAZIO ITURRI IZAN DAITEZKEEN HITZAK

Ospitalea Konfiantza Denbora
Zaindu Ongizatea Orbaina
Diferentea Etxea Ezustekoa
Enpatia Osasuna Umorea
Adiskidetasuna Gaixotasuna
Familia Poza Normala Jolastu
Zauria Barrea Amodioa Beldurra
Asperdura Amorrua Askatasuna
Dibertsioa Medikuntza



## ZURE EKARPENA INSPIRATZEKO ADIERAZTEKO edo MARRAZTEKO

# ZURE ESPERIENTZIA PARTEKATZEKO LEKUA

(espazio osoooooooooa hartu dezakezu)